

13.ZIRKULARRA

2018-19 Denboraldia

EMAKUMEZKO ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Emakumezkoen erregionalen ohorezko txapelketa antolatzen du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

I TALDEA: TOURING K.E.; OSTADAR S.K.T.; ZUMAIKO F.T.; ZARAUTZ K.E.; LAGUN ONAK C.D.; GOIERRI GORRI F.K.; EIBAR S.A.D.; BERGARA K.E.; UROLA K.E.; REAL SOCIEDAD S.A.D.; AÑORGA K.K.E.; TOLOSA C.F. eta LEINTZ ARIZMENDI K.E.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen erregionalen ohorezko liga talde bakarrean jokatu da, puntuen bidez eta bi itzulietara, Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituz.

Emakumezkoen Euskal Ligara lehen sailkatua igoko da. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako bigarrenek Emakumezkoen Euskal Ligara iguera promozioa jokatu dute.

12 eta 13 postuan dauden sailkatuak Emakumezkoen Gorengoen mailara jaitsiko dira.

Liga bukatua (24 jardunaldi), 13 taldeek Gipuzkoako Kopa jokatu dute. Lehenengo hiru sailkatuak Final-zortzietan salbuetsiak geratu dira. Final-zortziak (2019-05-12); Final-laurdenak (2019-05-19); Final-erdiak (2019-05-26) eta Finalak (2019-06-02) jokatu dute.

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

90 minutu, bost aldaketa, eta gehienez zazpi ordezko eserlekuan.

4) ORDUTEGIAK

Klub antolatzaileek, aukera izango dute, beraien partidua larunbat arratsaldera aurreratzeko, 15:30etik aurrera, aurkakoaren baimenik gabe.

5) XEDAPEN OROKORRA

Emakumezkoen erregionalen ohorezko mailaren helburua 14-16 taldeko multzo konposizioa lortzea da. Hori dela eta, zirkularrean aurreikusitako igoera eta jaitsierekin eta Euskal Ligatik egon daitezkeen jaitsierekin multzoa talde bakoitiek geratuko balitz, lurraldeko kategoria guztietan igoera eta jaitsierekin erabiltzen den irizpide orokor berbera erabiliko da, hots da:

- a) Emakumezkoen Gorengo Mailako talde bat igota.
- b) Emakumezkoen Erregional Ohorezko Mailatik jaitsitako taldeen artean hobeto sailkatu denaren jaitsiera saihestuz.
- c) Eta horrela behin eta berriro

Izena emandako taldeek gehienez 25 lizentzia izan dezakete eta kopuru honetan “FA”; “FJ” eta “FC” lizentziak zenbatuko dira; azkenekoan (FC) 15 urteak beteak izan beharko dituzte. **Lehen ekipoa inskribatutako eta FJ “ edo “FC” lizentzia duten jokalariek** ezingo dute jokatu lizentzia hauei dagokien taldean, hau da, jubenil eta kadetea.

6) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenaz, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

Donostia, 2018ko iraila
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe